

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 432/2019 Erabakia, uztailaren 8koa. Onestea Elena Aulestiarte Laca andrearen izendapena, diputatu nagusiaren konfiantzazko idazkari jardun dezan

Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Lege Araubideari buruzko abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak 8.11 artikuluan eta Foru Kargu Publikoen Jarduna arautzen duen uztailaren 11ko 10/2018 Foru Arauaren laugarren xedapenean jasorikoarekin bat etorriz, Foru Gobernu Kontseiluari dagokio diputatu nagusiaren edo dagokion foru diputatuaren proposamena entzun ondoren, foru aldundiko lanpostu zerrendan jasota dauden behin-behineko konfiantzako lanpostuak beteko dituztenak izendatzea.

Horregatik guztiagatik, diputatu nagusiak proposatuta, abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauaren 8.11 artikulua aitortzen dizkidan ahalmenak baliatuz, eta Foru Gobernu Kontseiluan gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, honakoa

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Elena Aulestiarte Laca andrea izendatzea, konfiantzako behin-behineko langileek betetzekoa den diputatu nagusiaren idazkari lanpostua (kodea: 1300.002). Eragin-data: 2019ko uztailaren 5a.

Bigarrena. Erabaki hau ALHAOn argitaratzea.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko uztailaren 8a

Diputatu nagusia
RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE